

f) Transzendentziaren moralaz ere hintzegin ohi da, zentzu honetan zera ulertzen delarik: moraltasuna ez dela lekutzen ongian edo betebeharrean, norberaren transzendentzia edo gainezkatze-gertakarian baizik.

g) Matematikan, koefiziente razionalazko gaien zenbaki finitu batez osaturiko ekuazio algebrako baten erro bidez ezin azal daitekeenari deritzo "zenbaki transzendente" a.

Paulo Iztueta

Ik. Inmanentzia; Transzendentala.

### Trapp, Ernst Christian

Alemania-ko pedagogoa da, 1745-1851 urte bitartean bizi izandakoa. J.B. Bacedow-ek Dessau-en sortutako "Philantropinum" en edo "Eskola Aske" an lan egin zuen. Ilustrazio garaian garrantzi handia lortu zuten Pedagogiari buruzko haren gogoetek, eta eskola honek Prusia-ko Federiko II.aren aldetik ere eraginik jaso zuen, erlijio naturalari eta beronen etika estoikoari dagokienez.

### Trasimako Kalzedonia-koa

K.a. IV. mendean bizi zen \*sofista da, Platon-en Errepublikan agertzen dena. Zuzentasuna ez dela absolutua, baizik eta bakoitzaren interesen menpean dagoela aldarrikatu zuen Platon-en kontra. Menperatzaileak bere nahiak betetzen dituenari deitzen dio bidezkoa; zuzenbidea, beraz, boterean eta indarrean oinarritzen da. Zuzentasuna ez da egia aldaezina, gizonari ez bait zaio axola gezurrik esatea, bere gogoia betetzeko beharrezkoa iruditzen zaionean.

### Trendelenburg, Freidreich Adolf

Eutin-en 1802an jaio eta Berlin-en 1872-an hildako filosofo alemana. Aristotele-ren lanak aztertu zituen eta beraren eraginpean, Hegel-en doktrina kritikatu zuen. Errealitatea organismo bat zela pentsatzen zuen. Eraldakuntza osoaren eragilea mugimendua da. Izate edo organismo guztiek daukate barruko teleologia. Obrak: Logische Untersuchungen, 1840; Naturrecht auf dem grunde der Ethik, 1860.

### Triada

"Triada" hitzak, euskarazko "hiruko" a adierazten du, erlijio edo filosofia zenbaitetan aurkitzen duguna: brahmanismoan ezaguna da Brahma, Visnu eta Ziva-ren hirukoa; neoplatonismoan, berriz, Batak, Adimenak eta Arimak osaturiko hirukoa.

### Troeltsch, Ernst

HauNSTetten-en 1865ean jaio eta Berlin-en 1923an hildako filosofo alemana. Kant,

Schleiermacher eta \*Baden-go Eskola" ren eragina jasan duena.

Erlijiozko kontzientzia aztertu zuen, kontzientzia hori sortzen duten elementu soziologiko eta historikoak kontuan hartuz. Obrak: Die Bedeutung des Protestantismus für die Entstehung der modernen Welt, 1906; Die Sozialphilosophie des Christentums, 1922.

### Tropoa

Grezian, eszeptikoek eskolak defenditzen zuen ezer ezin zitekeela jakin edo ezagutu argumentu berezi batzuren bidez; argumentu hauek dira "tropo" a.

### Trotzki (Leib Bronstein), Lev Davidovich

Ivanovka-n jaio zen 1879an eta 1940ean Mexiko-n hil zuten. Stalin-en arerioa. Beronen diktaduraren kontra borrokatzeagatik Errusia-tik erbestera joatera behartu zuten. Etengabe ko iraultza eta proletariaren nazioartekotasuna aldeztu zituen, baita langileen oinarritzko erakundeak edo sovieta ere. Obra: Errusia-ko Iraultzaren historia, 1931-1933.

### Tschirnhaus, Ehrenfried Walter

Obserlauitz-en 1651n jaio eta 1708an Oleschen-en hila. Matematikari, fisikari eta filosofoa. Spinoza-k kutsatu zuen haren lana. Wolff-ek, Leibniz-en ikasleak, haren fisika empirista, metodo matematiko-deduktiboa erabiltzen zuena alegia, bereganatu zuen. Obra: Medicina mentis sive Tentamen genuinae Logicae, in qua disseritur de methodo detegendi incognitas veritates, 1657.

### Txandakakoa

Teoria, sistema edo kontzeptu-egitura baten lekua har dezakeenari deitzen diogu txandakakoa edo alternatiboa. Hala ere, sistema bakar bat hartzen bada egiazkotzat, benetazko alternatibarik ez dago; baina \*sistemak alderagarriak direla eta bakoitzak bere abantailak eta desabantailak dituela onartzen bada, alternatiba desberdinak dardela esan behar da. Askotan teori multzo bati buruz eztabaidatzen da eta, honela, azterketa sakonago baten bidez \*teoria alternatibo horien aldakuntza eta hobekuntza bederen lortzen da, erabateko erabakirik hartzen ez bada ere.

### Txarvaka Eskola

India-ko filosofi eskola heterodoxoetako bat, \*budismoarekin eta \*jainismoarekin batera. Sistemaren eraikitzailearengandik dator kio izen hori, pertsonaia bera historikoa den ala ez eztabaidatzen den arren. "Lokayata" eta "Svabhavavada" ere deitu ohi da.

## Txinatar filosofia

Txarvaka eskolaren testu nagusienak etsaien aipamenetatik ezagutzen dira bakarrik.

Eskola materialista denez, kosmo enpirikoa bakarrik ezagutzen du egiazkotzat --hortik, hain zuzen, "lokyatata" izena--; beraz, \*hinduismoan hain oinarritzakoak diren irakatsiak (atman, karma, berraragiztapena, eta abarri dagozkienak, hain zuzen ere) ukatu egiten ditu. Hala ere, filosofi eskola bezala (eta batez ere erlijio bezala), hinduismoaren mundu zabalaren barnekotzat hartzen da.

Txarvaka-ren \*materialismoaren arabera, materia --benetako errealtate bakarra, hain zuzen-- airez, lurrez, suz eta urez osotuta dago. Filosofia presokratikoarekin kidesatua behintzat aurki daiteke hemen.

Kontzientzia bera materiaren funtzioa da, eta elementu materialen konbinazio berezietatik sortzen da.

Ezagutu, ere, sentsuez hartzen duguna bakarrik ezagutu dezakegu; bestelako ezagupide guztiak ez dira fidagarriak.

Heriotza ez da bestelako bizitzara igarotzea, bizia erabat galtzea eta ezerezera itzultzea baino.

Etikaren aldetik hedonista da eskola hau. Era berean, karma-rekiko irakatsia ukatzen du; eta inoren patua bere bizitza-ekintzen efektua denik ez du onartzen: "meritua" eta "demeritua" kontzeptuek ez daukate esangurarik, txarvaka eskolaren arabera.

Erdi Aroa arte iraun zuen eskola honek, ofizialki bederen.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Indiar filosofia.

### Txinatar filosofia

Honela dio G. Greel-ek bere El pensamiento chino desde Confucio hasta Mao Tse-Tung liburuan (Alianza Edit., Madrid, 1976): "Las sutilezas metafísicas a que está acostumbrado le salen al paso allí (en la filosofía india), y en formas de mayor complejidad aún, si cabe. Pero el filósofo occidental que estudia el pensamiento chino primitivo puede sentirse inclinado a negar que aquello sea filosofía en absoluto. Desde luego tiene uno que admitir que es una clase de filosofía muy diferente, que por lo general permanece muy apegada al terreno de la vida humana ahora y aquí y a los problemas humanos" (216-212 orr.). Honetaz ik. "Ekialdetar filosofia" artikulua.

Hurbilketa formal bat egin nahian, honela definituko genuke txinatar filosofia: VI.

mendetik hasi eta gaur arte Txina-n landu den pentsamendu-korrante berezia eta bateratua. Era honetara, India-tik sartu zen budismoa eta azken mendeotan Mendebaldetik sartu diren filosofiazko ismoak ere Txinatar Filosofiatzat har daitezke, bertako tradizio handiaren arabera birmoldatu diren neurrian: honela, txinatar \*budismoaz mintzatzen gara; eta \*marxismoa maoismo bihurtu da Txina-n.

Ekialdetar filosofiaren tradizio zaballean kokatu ohi da txinatarra ere (ik. Ekialdetar filosofia); hemen txinatar filosofia bere autonomian eta bere batasun historikoan azaldu beharra dago.

Txinatar filosofiaren historia oso loturik doa historia politikoari: alde batetik, filosofo nagusi gehienek, filosofia irakastearekin eta idaztearekin batera, kargu politiko publikoren bat betetzen zutelako; eta, bestetik, aldiaren aldiko erregimenak edo dinastiak filosofi eskola jakin bati bere babes ofiziala eman ohi ziolako. Horregatik, txinatar filosofiaren historiaren banaketa nagusiek eta txikiagoek dinastien aldaketekin zerikusi handia ukan ohi dute sarritan.

Horri kontuan izanik, lau aro handitan banatu ohi da askotan txinatar filosofiaren historia (hala, e.b., Paul Edwards-en zuzendaritzapeko The Encyclopaedia of Philosophy delakoak):

1. Antzinakoa, hasieratik K.a. 221. urtea arte, Chin dinastia gailendu zen artekoa, alegia. "Ehun Eskolena" ere deitu ohi da: hau da, hainbat filosofi eskolaren sorrera eta eraketa gertatzen da garai honetan. Aro hau \*konfuzianismoarekin eta \*daoismoarekin hasten da gorpuzten. Bi eskola hauek gertatuko dira Txina-ko Filosofi tradizioaren bi ardatzak. Hauen inguruan eta sarritan hauen kontra sortu ziren beste eskola asko --"Ehun Eskola"--; lau dira nagusienak, horien artean: \*Mohismoa, Dialektizismoa (edo Izenen eskola), \*Yin-Yang Eskola eta Eskola legalista.

2. Erdikoa, K.a. 221-K.o. 960 arte, hau da, Sung dinastiak boterea hartu zuen arte. Alde batetik, filosofi korrante eklektikoak sortzen dira, konfuzianismoaren barnean eta horren eta daoismoaren artean.

\*Sinkretismo-prozesu honetan eragin handia du Yin-Yang Eskolaren indartzeak eta zabalitzeak; eta bereziki I Jing ("Aldaketen Liburua") delakoak, bere Oinarri gorenari (\*t'ai chi) eta Yin/Yang printzipioei buruzko irakaspenen bidez.

Bestetik, budismoa sartzten da Txina-n, eta poliki-poliki asko indartzen da: berak ere hainbat filosofi eskola ematen ditu, eta bereziki Chan eskola, gero Japonia-n \*Zen